

Irakasle batek eta ikasle batek liburu bat idatzi dute elkarlanean euskarazko hedabideez

2010/02/04

Aitor Zuberogoitiak eta Lierni Alkortak —lehen irakaslea eta bigarrena ikasle ohia— liburu bat argitaratu berri dute elkarlanean: *Masa-komunikaziotik Informazioaren Gizartera. Euskararen bideetan barrena*, eta hor ikuspegi panoramiko globala eskaintzen dute euskarazko hedabideen inguruan.

Egileen iritziz, komunikazioaren mundua trantsizio-garai beteetan sartuta dago: azken bi mendeetan nagusi izan den eredu, masa komunikazioa, atzean geratzen hasi zen Interneten jaiotzarekin, eta, mende berriarekin batera, Informazioaren Gizartera gailendu da. Honek funtsezko aldaketak ekarri ditu, hala nola interaktibitatea, audientziak zatikatzea, etab.

Panorama hori kontuan hartuta, egileek aztertu dute euskarazko hedabideek XIX. mendea ezker izan duten bilakaera. Tartean honako arloak aztertu dituzte: Gerra Zibilaren eragina, gerraostea, aldizkariak, zinema, liburugintza, irratia, egunkariak, hedabide lokalak, EITB eta hedabide digitalak.

Egileak

Aitor Zuberogoitia doktorea da Kazetaritzan, esperientzia luzea izan du kazetari moduan, hainbat liburu idatzi ditu euskarazko hedabideen gainean eta Ikerkuntza arduraduna da Komunikazio gunean, HUHEZIn bertan.

Lierni Alkorta, berriz, Ikus-entzunezko komunikazioan eta Humanitateak-Enpresan lizentziatu zen HUHEZIn. Gaur egun, Haur Hezkuntza ikasten ari da. Argia aldizkarian ibilia da, eta Berria egunkarian dihardu gaur egun. Liburuko atal bat bere karrera amaierako proiektuan oinarritu da.

